

KOSTUAK

Gure enpresak bi motatako kostuak izango ditu, alde batetik, dirua lortzea gustatuko litzaigukelako baina baita ere, gure bezeroak festan ateratzean lasaiago eta seguruago sentitzea nahi dugu.

- Kostu finkoak: Soldata, lokala eta gurekin lan egiten duten fabrika eta laborategiak
- Kostu aldakorak: Eskumuturrekoa sortzeko beharrezko materiala, lokaleko ura, elektrizitatea...

Gure produktuaren eskaria asko handitzen dela ikusten badugu, deskontu bat aplikatzeko aukera emango diegu bezeroei. Horrela hainbat eskumuturreko erosi nahi badituzte bai familiarako edo bai lagunentzako, merkeago aterako zaie.

Geroz eta eskumuturreko gehiago erosten badira, gure enpresa hazi egingo da eta ospe handiagoa izaten hasiko da.

Balioan oinarritutako negozio-eredua da, enpresaren interesa ez baita dirua lortzea, baizik eta bezeroaren bizitza erraztea. Baita ere, lehen esan bezala, diru pixka bat lortzea ere gustatuko litzaiguke, gure enpresa aurrera eramateko gai izateko.